

**Goibekokale**  
1997ko otsaila 21. zk  
ELGETAKO ALDIZKARIA

**UMEAK EZ DATOZ  
PARISETIK**



F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1ª EZK.

*Maderas Gallastegi, s.a.*

**MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxes: 6583061.

## ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inisialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita edo botá udaletxe azpiko buzoira.

## Euskal Herria korrika!

Gu joango gara!

Horixe baietz. Euskaldunok badugu zita bat hilaren 14an. aurtengo korrika, hitzen hotsa eta gordelekua izan den lekuan hasiko da, Arantzazun.

Azken orduko aldaketak direla eta Elgetatik ez da pasatuko baina hala ere inguruko herrietan edota Arantzazun bertan euskarari beharrezko zaion bultzadatxo hori emateko aukera izango dugu.


Euskara dugu euskaldunok gure nortasunaren ardatz eta erroa, gure kulturaren funtsa eta oinarria. Euskara hedatu behar da, euskaraz egiten dugu Euskal Herria egunero ihardunean. Eta lan honetan guztion ekarpenak dira beharrezko: antxitxika, txaloak joz, antolaketan parte hartuz, materiala erosiz... mila modu eta helburu bakarra: euskararen lurrean gure hizkuntza hedatzea.

La 17 urte dira korrika hasi zela eta gaur egun duen arrakasta izugarria da. Azken edizioan sehieun mila korrikalarik hartu zuen parte Euskal Herri osoa mobilizatu zuen ekitaldian; aurrean, bederatzi egunez, gau eta egun, 2.100 kilometro baino gehiago dituen ibilbidea beteko da, euskararen aldeko mezua zabalduz. Ezin ahaztu korrika kulturala ere hasi dela eta milaka kultur ekitaldi egiten ari dela dagoeneko.

Hilaren 14tik 23ra eta Arantzazutik Bilborainoko bidea egingo da beraz. 10. korrika hau errebindikazioaz gain jai bihurtu behar dugu eta hori norbanako bakoitzaren esku dago.

Ez da aitzaki makala korrika dela eta izerdi piskat botatzeko. Guk botako dugu, eta gustora gainera.

erredakzio kontseilua



*Estampaciones*

**Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



## Koloreek gaisoak sendatzen dituzte

**D**enok dakigu kolorea zer den: gorpuztetan isladatzen den argiak begiko erretinan ematen duen inpresioa.

Baina pertsona askok ez duena jakingo zera da: koloreak sendakorrak izan daitezkeela. Koloreen bidez sendatzen omen dira gaisoak, teknika honi kromoterapia deritzo.

Gauza berria da eta aintzinako Txinan edota Erdi Aroan erabiltzen zuten jadanik: esate baterako nafarrerria eta elgorria sendatzeko gaisoaren gela oihal gorritz estaltzen zuten. Gaur egun, bi aplikazio ditu medikuntzan; bai psikiatريان bai fisioterapian:

-Lehenengo kasuan gaisotasunaren arabera teknika ezberdinak erabiliko dira: gela kolore konkretu batez margotuz, nahiz kolore ezberdineko bonbilak jarriz.

Esan behar da kromoterapiari esker gaiso psikiakoak lasaitu egiten direla.

-Bigarren kasuan berriz, ultzera hobetzeko adibidez, berde eta gorri koloreak landu behar dira gaisoarenekin. Hau guztia kromoterapia klasikoaren arabera lantzen omen da. Hona hemen koloreen ezaugarriak:

**Gorria:** kolore magnetikoa da. Marte planetarekin badu zerikusirik. Biziteko gogoa eta borondatea adierazten du.

**Urdina:** Jupiter eta Saturnorekin lotuta dago. Zintzotasuna eta elkartasunaren kolorea da.

**Berdea:** kolore honen planeta ilargia da eta iraupena adierazten du. Kolore hau aukeratzen duen pertsonak gehiegi maite dute bere burua.

**Horia:** eguzkia da bere planeta. Etorkizunaren kolorea da.

**Morea:** Merkuroi planeta dagokio. Heldutasun faltaren kolorea da.

**Marroia:** Saturnorekin lotuta dago, baita atseginarekin ere.

**Beltza:** Kolorerik eza esan nahi du. Heriotza eta errebeldiarekin badu zerikusirik. Hauen adibideak lutozko jantziak eta bandera pirata izan daitezke.

Maite Peñalver



## Betirako tristuria?



**B**egi bistan dago ez goazela bide onetik; euskaldunok gero eta gutxiago gara, (antza denez oraindik ere haur gutxi egiten ditugu) eta gure artean gero eta okerrago konpontzen gara. **Ez dugu talde itxuririk.**

Duela hogeit hamar urte, nahiko ados geunden gure arazoa zein zen esaterako orduan eta nahiko elkarturik egiten zen lana; demokraziaren alde, euskararen alde, euskaldunon nortasunaren alde, etab. Denborak, dexente aldatu ditu gauzak, eta garai hartako hainbat helburu lortu ere lortu izan dira. **Garai batean bai egin zela talde lana.**

Normala denez, helburu bat lortzen denean, berriak markatzen dira, eta berri hauek izendatzerako orduan hasten dira arazoak, nahiz eta amaieran desberdintasun handirik ez izan batak eta besteak esaten duenaren artean. Baina, zoritxarrez ezberdintasunak handitzen dira, zer nolako bidea hartu behar den zehazterako orduan (hain ezberdin ez diren helburu horiek lortzeko). Hor gaude, geldi-geldi bakoitzak berea defenditzen, eta parean dagoenarena kritikatzen. Bitartean, tristuria nagusi, hildakoak, kale istiluak, halanolako estradizioak, etab. **Ez dakigu talde lana zer den.**

Beharbada, alde batetik, une kritikoan gaude, urteko lehenengo bi hilabeteak gogorak izan direlako; bestetik, elkarriketaren bat hasteko zorian gaude. Bidea irekitzea zaila da eta hartuemonak ez dira errezak izango, baina "guk" ez badugu konpontzen "gure" arazoa jai daukagu. Kanpotik datozenak ez digute konponduko, beste era batera jasotzen dituztelako gauzak eta benetan zaila delako "euskaldunon arazoa" kanpotik ulertzea. **Talde lana egin nahi dugu?** Ea gure tristuria amaitezina ez den eta euskaldunon etorkizuna kolorez aldatzen den.

Iñaki Ugarteburu



## GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua eta Iker Iratzabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Maite Peñalver eta Iñaki Ugarteburu. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

*Goibekokalek* ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## NATXO LOPEZ DE URALDERI KONTRATUA BERRIZTU ZAIO

**-HB-k, tekniko honen beharra dudan jartzen zuen azken saleketetan Elgeta bezalako udalarentzat gastu handia zelako. EAJk guztiz justifikatu zuen bere lana herritarrentzat lana ekarri duela esanez-**

Otsailaren 5ean egindako plenoan onartu egin zen Jose Ignacio Lopez de Uralderi kontratua urtebeterako berriztea, EAJko aldeko botuekin eta HBren kontrakoe-kin. EAJkoen esanetan, beraien asmoa azken urtez kontratatzea omen da, aurten bukatzen direlako Pagatzako urbanizazio lanak, gasarenak eta gasolinerako obrak.

HB-k Natxo Lopez de Ural-

deren efikazia demostratu gabe dagoela esaten du 1993tik hona lan berberarekin jarraitzen duelako. HB-ko ordezkariak bere lanari buruzko idatzizko informea eskatu zioten alkateari. Honez gain Elgeta bezalako udaletxe batek tekniko honen mailako pertsonak garestiegi direla gehitu zuten (5.400 pta ordurako gehi gastuak). Ondorioz lan hau alkateak berak egin beharko lukee-

la esan zuten.

EAJ-ko ordezkariak Lopez de Uralderen lana dagoeneko justifikatu dute herritar askok lana bertan lortu dutela ikusirik. Gaur egun 30 pertsona daude langabeturik herrian, 2 gizonezko eta 28 emakume. Gainera 300 milioiko dirutza kudeatzeko pertsona aditu bat behar zela gehitu zuten.

## IHAUTERITAN

**-Ostiralean jende asko animatzeaz gain tabernariak ere ahalegin bat egin zuten giroan sartzeko-**

Aurtengo ihauteriak bereziak izan dira. Ez bakarrik jai giro-rako aproposak direlako, baizik eta Elgetan ihauteria inoiz baino gehiago animatu delako aspaldiko partez. Udaletxeko kultur dinamizatzailerak tabernariak animatu zituen eta Gaztetxeoak ere saiatu ziren giroa ipintzen barikuan zehar. Hobekien mozarrotuta zegoen tabernari ere eman zioten saria, aurtengo irabazlea Haizea izan da. Taberna barrua baserri bat bezala jantzi zuten. Gaztetxeoak ere barrua antzaldatu zuten guztiz.

Kanpoko giroa ere aparta eta jende asko mozarrotuta: goxoki "gozoak", monjak, pailazoak, baserriarrak, txirrindulariak... Larunbatean ere animazioa eta afariak, batik bat ostiralaz disfrutatze-

aukerarik izan ez zutenek.

Aurtengo ihauterian azken eguna eskolako haurrek ipini zioten asteartean. Jai eguna izan zuten arratsaldean, ekitaldi eta antzezlanak izan ziren eta ondoren merienda goxoa. Tximeletak, tenistak, indioak, loreak... egunari kolorea eman zioten eta datorren urterarte agurtu zituzten ihaute-



Aurtengo ihauterian azken eguna eskolako haurrek ipini zioten asteartean.

riak. Hurrengoan denak batera eta hobeto.

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

**IAPAM**

Soldadura homologatuak

Hoditeria Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak  
Etxaurreak Komunak

Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156

## INOIZ BAINO MOTORZALE GEHIAGO

**-100 motor inguru espero zituzten. Antolatzaileak oso pozik emaitzekin.**

**Elgeta, neguko topaketetan lehenengotakoa izatea nahi dute-**

"Moto Club Arrate" taldekoak antolatu dute hirugarren urtez neguko motor topaketa Elgetan. Beraien helburua estatu mailan egiten diren topaketetako datueta-  
ra hurbiltzea da, 1000 motor ingurura alegia.

100 motor inguru bildu ziren, dena den 150 motorrentzat tokia zuten. Kuskusero asko motor eder horiek ikusteko, eta beste asko negozioa egiteko asmoz, gauza bat saldu eta beste batzuk trukean emanez.

Elgeta tokirik altuenetakoa denez Gipuzkoan, neguko topaketak antolatzeko ezin hobea dela gaineratu dute Arrate Motorzale Elkartekoek. Gainera "udaletxeko

eta elizako ordezkariak ere erreztasun asko ematen dituztenez oso pozik" daude hemen.

Benetako motorzaleak neguan biltzen direnak omen dira, antolatzaileen esanetan; udako topaketak askoz erosoagoak dira, jatetxetan bazkaltzen dute eta eguraldia gehienetan ona delako. Elgetara etortzen direnak motorzale amorratuak zirela gehitu zuten antolatzaileek. Horren froga Euskal Herri osotik etortzen diren zaletuak, gehienak, Bizkaitik etortzen dira eta baita Arrasateko Motor Taldetik. Elgetak duen fama "gogorra" dela esan ziguten negua oso hotza tokatu zaielako beti.

## AHO BATEZ ONARTUA

### MAHAI NAZIONALEKO KIDEEN ALDEKO MOZIO

**-Estatuko Gobernuari eta ETari elkarrizketako bidea hasteko eskatu zitzaizen. Aho batez onartu zen mozioa, lau puntutan oinarritzen zen.-**

Otsailaren 20ko pleno berezi baten onartu zen Herri Batasuneko Mahai Nazionalaren kartzelaratzeari buruzko mozioa. Aurkeztu zen mozioa aho batez onartu zen zinegotzi guztien botoekin.

Onartu zen mozioaren idazkia lau puntutan oinarritzen zen eta EAJ-ko zinegotzien partetik 3. atalaren aldaketa proposatu zen. Punto hau HBko zinegotziek onartu zuten. Lau puntuen laburpena hauxe da:

1. Herri Batasunaren Mahai Nazionalaren kartzelaratzea

salatzen dugu eta kide guztiak aske uztea eskatzen dugu.

2. Gaur egun, Euskal Herria eta espainiar Estatuaren arteko gatazkaren konponketak elkarrizketa eta Euskal Herriaren eskubideen onarpenaren bidez etorri beharko du.

3. Espainiar Estatuari eta ETari deialdia egiten diogu elkarrizketaren bideari ekin diezaion.

4. Erabaki hauen berri espainiar gobernuari eta espainiar Estatuaren Epaitegi Gorenari igorriko zaie.

#### Atun bilketaren emaitzak

Frente Polisarioko Euskal Herrirako ordezkari baten bisitarren ondorioz hasi da atun laten bilketa kanpaina. Elgetan 42 kilo bildu dira. Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta eta elgetaren artean tona bat inguru bildu da. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, espero baino gehiago jaso da eta oso positiboki baloratu dute.

#### Hitzaldia: Autoestima eta Komunikazioa familian

Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta eskolako Guraso Elkartek antolatu dute hitzaldia martxoaren 19rako. Hitzaldiaren helburua, autoestimaren gaia lantzea eta familian egon behar den komunikazioaren garrantziaz hitz egitea da. Hitzaldia ematera Agintzari Elkarteko ordezkari bat etorriko da eta Kultur Etxean izango da iluntzeko 9etan.

#### Gaztetxeko urtemugako ekintzak

Martxoak 22 urtemugaren eguna da eta horretarako hilabeta osorako ekintzak prestatu dira, besteak beste:

**Martxoak 8** emakumeen eguna: hitzaldia 7:30; merienda 8:30 eta antzerkia 10etan (Belatxikieta eta sorginak).

**Martxoak 21** Itoitzi buruzko hitzaldi eta bideoa Ozkarbi Elkartean gaueko 9:30etan.

**Martxoak 22** poteoa, urteurreneko bazkaria, jokoak eta kontzertua.

*Goibekokalek* berriz 2. urteurrena dela eta kontzertu bikaina antolatu du martxoaren 22rako. **Anje Duhalde** izango dugu Elgetan. Gaueko 10:00etan izango da 500pezetaren truke.

# ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



# HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

## Gantxilo ikastaroa Liburutegian

Angiozarko liburute-giak antolatuta gantxilo ikastaroari hasiera emango zaio martxoaren 7an. Ikastaro hau Mari Jose Inzak emango du eta barikuetan izango da, astero, arratsaldeko 15,30etatik 17,30etara.

Esan beharra dago, ikastaro honek jarraipenik ere izango duela, honen ostean "encaje de bolillos" egiten ikasteko aukera egongo baita, beraz animatu eskuak arindu nahi duzuen guztiok.

## Internet erakustaldia

Pasa den otsailaren hamahiruan Internetari buruz demostrazioa egin zen Liburutegian. Bertaratu zirenek munduko hainbat lekutako beste "zibernetekin" hitz egiteko aukera eduki zuten eta beste hainbat bitxikeri kontsultatu ere bai: Argentinako osabaren telefono zenbakia, denda elektronikoa, etab. Hitzalditxoa eman zuena Xabier Mikeo izan zen eta hilean behin errepikatuko den esperientzia izango da.

Gainera, laster baten, Angiozarri buruzko orria irakurtzeko aukera edukiko dute mundu guztiko zibernetek Internet sare honen bidez.

## PERMAKULTURA: ESKOLAN IKASTEKO ORTUKO TEKNIKA BERRIA

Industria eta Nekazaritza Sailak eskaintzen dituen Eskola Baratzak antolatzeke laguntzekin badira hiru ikasturte Angiozarko Herri Eskolak esperientzia berri honi hasiera eman ziola. Aurten teknika berri batekin landuko dute baratza, gerora bakoitzak etxean ere baliabide izan dezan.

Badira hiru urte Angiozarko Eskolan ortua eratzen hasi gine-la, eta horrez gero apurka-apurka landutako lur eremua zabaltzea lortu dugu. Lehenengo urtean, has-teko, lur zati txiki bat prestatu eta abiatu ginen, baina planifikazio handirik egin gabe, ahal genuen moduan.

Bigarren urtean aurreko esperientzian oinarrituta antolake-ta zehatzagoa eratu genuen, eta Eskolako Programarekin ere lotzea lortu genuen. Landareak eta haziak sartu aurretik Eskolan bertan erne-tegiak montatu eta, ondoren, sortu-tako landaretxoak baratzara pasatu genituen. Esperientzia honetan haur guztiek parte hartu zuten, hiru urteko txikienak ere ahal zuten neurrian, landarean harantz eta honatz garraiatuz.

Produktioari begira ez zen gauza haundirik lortu, dena uda-ran zaindu gabe geratzen zen eta, Baina gure helburua lanadarea hazitik erne eta garatzerainoko prozesua ikastea zenez ongi egin-dako lana esan daiteke dela. Dena den zenbait barazki lortu genituen: patatak, kalabazak, azenarioak, erremolatxak, babak,...

Aurten esperientzia berri bat sartu nahi dugu: "Permakultu-

ra" teknika deitzen zaiona. Hitz honen barruan ez dira ortuari buruz dakigunaz gain gauza berri asko sartzen, gure aitxajun eta amandreek egiten zutena hobeto aprobetxatzeko sortu da teknika "berri" hau. Askotan lurra lantzeko teknika berri eta produktiboen atzetik joatearren lurra agortu egiten dugu. Lurrari eduki behar zaion errespetoa kontutan hartuz, naturak ematen duenetik abiatuz, produktu eta ongarri naturalak erabiliz lurra landuko dugu.

Ingurugiroaren heziketa eskolatik hasi behar da. haurrek baratza lantzean teknika berriak ikasten dituzte eta era berean natu-rari eduki behar zaion errespetoa.

Datorren urtean babarrun asko jasotzea espero dugu, ea baba-jan bikain bat egiteko aukera izaten dugun!! Gonbidatuta zaudete.



Angiozarko Herri Eskolako ikasleak ortuan lortutako barazkiak erakusten.

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar



Produkturik onenak,  
prezio onenean

Tel:  
76 80 98.

ALDI

# PARE BAT ERREFLESIO ALDIZKARIGINTZAREN GAINEAN

Kaixo *Goibekokaleko* irakurle guztioi: Gu 2. DBH-ko ikasleak gara. Guk *Goibekokale* eta beste aldizkari batzuen arteko desberdintasunak konparatu ditugu.

Desberdintasun gehienak portadan nabaritzen dira. *Goibekokale* eta beste 8 aldizkari batzuetatik portada gehienak koloredunak dira eta *Goibekokalekoa* ez.

Aldizkari gehienak hogeitabost orri baino gehiago dituzte eta *Goibekokalek* hogeitau orri. Aldizkari gehienek ez dute orden berdina.

Hasiera batzutan agendak aurki ditzakegu, beste batzuetan inkestak...

*Goibekokale* aldizkarian jende askok hartzen du parte.

Aldizkari batzutan merkatuak agertzen dira eta uste dugu *Goibekokalen* ere horrelakoren bat ipini daitekeela.

*Goibekokalek* ez ditu alde txarrak bakarrik, onak ere baditu, hori ere aipatzekoa da. Errezetak agertzen dira beste aldizkari askotan agertzen ez direnak, eta baita, ingurunekeo baserri auzoak agertzen dira eta beste askotan ez.

Aldizkari batzutan urte bukaeran, urteari errepaso ematen diete. Urte bukaeran abestiak jartzea ez legoke hain gaizki.

Guk pentsatzen dugu joku gehiago jartzea ongi etorriko zela. Horrela jendea gehiago entretenituko litzateke.

Aldizkari askotan musika eta kulturari buruzko informazioa ematen dute eta ongi etorriko litzaioke *Goibekokaleri* kulturaz edo musikaz atalen bat jartzea.

Aldizkari askotan ez dira agertzen ez lehia-keta eta ez denporapasarikbai ordea gure herrikoan.

Komikiak handi-goak izatea ere ez litza-

teke gaizki egongo, oso dibertigarriak baitira.

Aurkibide bat egotea komeniko zaie *Goibekokaleko* irakurle despitatueneri ez galtzeko irakurtzean.


Portadak kolorea izango balu, aldizkariari beste itxura bat emango lioke eta horretaz gain irakurtzeko gogo gehiago.

Ezin dugu esan *Goibekokale* gaizki datorrela herriarentzat. Horrela herriko notiziez enteratzen gara. *Goibekokalen* jende askok hartzen du parte. **GOIBEKOKALE ZORAGARRIA DA HERRIAREN-TZAT.**

Ikusi duzue *Goibekokaleri* ezin zaiola kontra egin, zeren eta kontra egiteko arrazoirik ez dugu aurkitzen.

*Goibekokalen* idazteko, hitz gabe gelditzen hasi gara eta laster, begiak itxi bezain pronto lo hartzen dugun moduan agurtu egin beharko zaituztegu, guk egindako atal hau entretenigarria izan dela uste dugun bitartean. Burua asko kantatu ondoren, espero dugu ez aspertzea gure artikuloa irakurtzen. Agurtzen gara eta beste bat arte.

DBH 2. maila



**GOIBEKOKALE** zoragarria da herriarentzat.

BILTEGI  
DENDA

Zugandik  
gertu behar  
duzun beste

Salbador 24 Tel: 768206



**URONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

## Zer pentsatzen dozu droga bigunei buruz? Legeztatu bihar dia? Elgeta moduko herri baten drogak mobitzen dia?

Pentzau jaku galdera hau eittia interesgarrixa dala, drogei buruzko iritzi desberdinak darelako ta honen gaiñian gero ta gehixau berba eitten dalako.


### Bihargiña (32 urte)

Ba peligosua dala ze poliki-poliki droga haundixauetara pasatzen juan zeinkielako. Droga bigunak legalizatzia bihar bada hobeto izango litzake, legalizatzeke daon dana beti peligosuaua da. Ni ibiltzen naixen giruan behintzat ez da droga asko ikusten.



Amala

Ariza endiarrieta



Agustín

Gorratategi

### Bihargiña (31 urte)

Droga bigunak baiño badare beste batzuk legalizauta dauazenak eta txarrauak dianak. Horrei drogoi inportantzia emoten jakue ta alkoholai adibidez oso gutxi, soziedadiak amittiduta dakalako. Elgetan droga asko ez da ikusten.

### Biharbakua (31 urte)

Droga bigunak kontrolakin konsumitzen badia ez dao arriskurik, badare beste batzuk, adibidez alkohola, legalizauta egon harren kalte asko eitten dabenak ta jentia ez dabena kontutan hartzen. Nik alkohola txarrau ikusten dot. Legalizatziari buruz pertsona bat mundu bat da, ta orduan legalizatzia oso relatibua da. Elgeta ain txixixa izanda droga asko mugitzen da.



Luis Benito  
Romanelli



Garbino  
Iragabal

### Etxekoandria (37 urte)

Ba ez dakit, nik pentsatzen dot horrek, be pasau barik, kontrolauta hartu ezker ez dare txarto, kontrolatzen jakin bihar. Kontrolatzen jakin bizu, alkoholakin be bardin da, kontrolpian erabili ezker. Bihar bada legalizau bihar dia, Elgetan ez da droga asko ikusten, entzuten da baten bat dabilela edo, baiña asko ez.



Martina  
Angoitia

### Jubilatua (76 urte)


Neri droga danak ergelak pentzatzen jataz, bai bigunak ta baita gogorak be. Bigunekin jolasian hasten danak gogorrekin bukatzen dabelako. Nik ez dot uste legalizau bihar danik. Elgetan drogia egon, eongo da, baiña asko ez.



Roberto Basauri

### Bihargiña (39 urte)

Droga bigunetan kontrolatzen badakizu ez da arazorik eoten, txarra da ez zazenian kontrolatzen. Droga bigunak horretako bada legalizauko nittuke. Droga asko ez da ikustan, hala ta be, batzuk ikusten dia.



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.

Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.



**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284



**♈ Aries:** Idioma barri bat ikastiak kriston bultzakadia emongo dotza zure bizitzia.

**♉ Taurus:** Argi bolumenakin. zure estarrixa ez da jolaserako.

**♊ Geminis:** Erlojua baiño buelta gehixau emoten don/dok eta erdexak alperrik.

**♋ Cancer:** Mutututa geratuko za zer eñ dozun konturatzen zazenian.

**♌ Leo:** Pista batzuk eukiko dittun/dittuk zeozer pasau eskero ezta?

**♍ Virgo:** Indar batek lagunduta, espero ez zinuana lortuko dozu, ez euki zalantzaik!

**♎ Libra:** Hurrengo egunetan suerte piska bat lagun dozula zure poltsikua beteko da.

**♏ Escorpio:** amistade onak eñgo ditzuk/ditxun eta honek amistadiok gogortu eñgo dia.

**♐ Sagitarius:** zulo batzuk pasau bihar-ko dozuz baña kristonak eñ beihar-ko dozuz zuluok gaindetzeko.

**♑ Capricornius:** Arazuei neurrixa hartuko dotzak/dotzan eta ez due katerik eñgo.

**♒ Acuarius:** Olixo piskat emon belaurian... ariñau ibiliko haiz.

**♓ Piscis:** Hurrengo egunetan Don Celes-en antzera ibiliko za.

## Agustin Peñalver Bihargiña (57 urte)

- Zetan eitten dozu biharra? Tornilluak eitten.

- Zure biharra gustatzen jatzu? Bai.

- Zenbat urte hamen biharrian? Zortzi urte.

- Nungua za? Jaengua, Veas de Segura herrikua.

- Zenbat urte Elgetan bizitzen? Hogeita hamaika.

- Ze alde dao Andaluzia ta Euskal Herrixan artian?

Bakotxak al daben lekuan bilau biha dau bere bizitzia, ta ni hemen noian urtietan oso pozik bizi izan nai.

- Ze botatzen dozu faltan gehixen? Anbientia ta jente nausixa.

- Ze da Euskal Herritxik gehixen gustatzen jatzuna? Jentia, anbientia, errespetua... Ta gutxien? Nik danok bakian bizitzia nahi dotela.

- Zein da zure bizitzako ametsa? Ni ta nire ingurukuak ondo bizitzia, hori danoi opa dotzuet.

- Zeoze erregalau dotzue San Valentin egunian? Familixako maitasun ona.

- Kirolik gustukuena? Pelotia ta fubola.

- Ze taldekua za fubolian? Lehen Athletickekua oiñ baiño gehixau.

- Semiari aholkun bat emoten dotzazu partidu aurretik?

Nik ez dakat esperientzia asko, baiña esaten dotzat galtzen ta irabazten jakin bihar dala.

- Ze pentzatzen jatzu gaztetxia eitten dabilen ekintzak? Oso ondo.

- Ze eitten dozu zure denbora librian? Gutxi dakat, baiña deskantzau, ta txikito batzuk hartu.


- Kotileoko aldizkarixak irakurtzen dozuz? Ez.

- Esnatzen zazenian burutik lehenengo pasatzen jatzuna? Lanera jua bihar naizela.

- Musika gustokuena? Anbientia ipintzen daben dana.

- Dirua errez lortzeko formarik bada go? Ez.

- Ze falta da Elgetan? Gauza asko; baiña gehixenbat jente gaztiantzat gauzak.



**IBAIBA-RRIAGA**  
GARRAIOAK  
Tel: 768072  
Salvador zeharbidea 2  
ELGETA

M<sup>a</sup> Karmen  
Lenzeria  
Lentzeria eta  
kosmetika gaiak  
Salvador zeharbidea.  
Tel: 789040

**HAIZEA**  
**TABERNA**  
giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.  
Tel: 768256

## HEMEN DAUDE BATZUK ETA BESTEAK... BESTEAK BADATOZ!!!

Iaz hiru jaio baziren ere aurten momentuz 8 jaioko dira. Erreportai honetan ez daude denak, sorpresa modura utziko ditugu atzetik datozenak.

Nork daki urtea amaitzerako animatuko diren beste batzuk ere. Hementxe bildu ditugu beraien esperientziak eta kezak. Ea denok ikasten dugun.



Mari Carmen eta Jose Ramonen alaba berria Maria Saratsua Landakorta izango da eta baliteke ale hau argitaratu orduko jaiotzea.

Lehenago ere 3 urteko mutiko bat dute, Oskar. Mari Carmenek aldatuko lukeen bakarra, "erditzea laburragoa izatea

da edo behin-tzat min gutxiagorekin. Aurrekoan, Oskar jaio orduko 22 ordu pasa ziren eta orain Arrasaten behintzat epidurala ipintzen dutenez zertxobait lasaiago nago".

Horrelako tripa handiarekin zailena lo egitea dela aitortu zigun "ohean buelta eman aurretik bi aldiz pentsatzen dut, motxila bat gainean eramatea bezala da eta kendu ezin. Nik dena den 7 kilo bakarrik irabazi ditut, imaginatu orduan 20 gehiago dituenak". Egoera batzutan gogorra bada ere ez lioke gizonari aldatuko bere lekua, "erditzeak arrosentiarazten nau, mina, jarraian datorren momentu eder horren aurretik dagoen une bat baino ez da".

Mireia eta Daviden lehen semea Pello Palacios Markiegi da. 1997ko Santa Ageda bezperan jaio zen Bilboko eritetxe batean.

Gauetz ondo egiten du lo eta dagoeneko barre batzuk egiten hasi da. Mireiak esandakoaren arabera, haur baten gastuak kontutan izan behar dira animatzeko orduan. Dena den lau hilabete barru lanean jarraitzeko asmoz dagoenez, nork zainduko duen ardura du. "Nere ama ere hor dago baina hilabete batzuk barru umea askoz gehiago mugituko da eta lan asko eman dezake, beraz haurtzaindegi bat edo etxera norbait ekartzea dira aukera bakarrak".

Aldaketa handiena haurren orduetara moldatzea da, hala ere Pellok sei ordu ere egiten ditu lo gauetz. Momentuz etxean dagoen bitartean ez du

ikusten arriskurik, nagusi-tzen hasten denean ikusi beharko. Haurdunaldian zehar informazioa jasotzen da, baina erditzeko orduan denak berdin. Senarrak asko laguntzen dio eta "aita adurra dariola dago", erditzean eta etxean Daviden lana oso garrantzitsua da Mireiarentzat.



Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18  
Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

Gurutze eta Jose Mari-ren lehen alaba, Ibane Zubiaurre Telleria da, 1997ko urtarrilaren 15ean jaio zen.

Gurutze eta Jose Mari-entzat jaiotza ondoren dena aldatu da. Lehengo bizimodua amaitu omen zaie momentuz, "umearen erritmora bizi gara, berak esaten du noiz zer egin, haurdun geratu aurretik bada-kizu dena aldatuko dela eta..." Jose Mari-aren ustez diru kontua ez da garrantzitsua, "badakizu pertsona bat dela eta logikoa da bere gastuak izatea" eta Gurutzek, "lehen afari eta gaintzekoetan gastatzen genuena orain aurreztu egiten dugu, beraz guzti hori alabarentzat da".

Egun osoa, 24 orduak, umearenak dira amaren ustez eta "orain bera oheratzen denean, gu ere berarekin joaten gara.



Ume ona da nahiko lo egiten du gauz".

Familiaren laguntza oso positiboa da. Jose Mari-entzat erditzeko orduan gizonak ez daki zer egin, ez daki nola lagundu.

Sorkunde eta Mikelen bigarren alaba da Uxue Larrea Arotzena, 1996ko ekainaren 18an jaioa.

Erditzeko gimnasia eta egin zituen, baina puntu bateraino lagundu zion bakarrik, "momentu batetik aurrera deskontrolatu egiten zara topera, buruan daukazun bakarra ume batekin esku artean aterako zarela da eta horrek indarra ematen du". Garbi zuen lehenengotik ume bat baino gehiago nahi zuela eta horrela, trasteak gordetzen hasi aurretik bigarrena etorri da. Ekonomia eta dirua begiratu behar bada ere ez da funtsezkoa, senarraren lana garrantzitsuagoa omen da eta berak laguntza handia izan duela aitortu digu, batik bat erditzean. Lehenengo alaba jaio zenean senarrari esan zionez, "muestria hemen duzu eta nahikoa".






**IRAMA**

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262  
tel: 789057-768025

**EROSLE**




M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



**KONTXI  
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009



Dayami eta Vicenteren semea Adrian Fajardo Baró da eta iaz jaio zen.

Dayamirentzat semea betirako da eta dirua ez da funtsezko baldintza, "ez da senargaia izatea edo ezkontzea bezala, beste pertsona baten ardura dut orain eta betirako". Senarra ez omen du oso laguntzaile ona "lau kontu esan eta umearekin jolastu du, baina ipurdia garbitu behar denean..."

Beldur handia ematen dio droga kontuak, eta baita lan ezak, "nik asko pentsatu nuen guzti honetan umea izan aurretik eta izateko erabakia hartu genuen ez dakizulako etorkizunean zer gertatuko den, agian hobera doa edo txarrera".

Familia Kuban duenez koinatak asko laguntzen dio, bere ama, aizpa... dena da. "Erditu ondoren ez nuen ondo pasatu, momentu horretan senarrak asko lagundu zidan".



Isa eta Asierren semea maiatzaren lehenengoan jaiotzekoa omen da eta Gaizka Morales Richard deituko da.

Amak ezinbesteko kolaboratzailea izango du umea zaintzeko, alaba nagusia, Nagore. Nagorek esan zigun bera prest dagoela laguntzeko "gainera igerian badakidanez..." Isak azpimarratu zigunez, lehendik honako desberdintasun handiena, orain disfrutatzeke aukera izango duela da. "Nagore jaio zenean, ez nuen disfrutatu, oso urdu-ri nengoen dena berria zen eta hari begira egoten nintzen beldurrez".

Erditzeari ez omen dio beldurrik lehenengo azkarra izan zen eta lasai dago. Oraindik lanean dabil eta tripa handia duenez oso torpe sentitzen da "gainera kaxekin eta ibiltzen naizenez, imaginatu... Gizonari pasako nioke momentu hauetan tripa baina ez dut nahi". Beste guztientzat bezala, familiaren laguntza ezinbestekoa iruditzen zaio.

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus  
Arrazola

**VIVO**  
Janari  
denda

**E**  
**HARATEGIA**  
**A S T I**

San Roke 6  
tel: 768168.

Kartetan  
jokatzeke giro  
egokia

Tel: 768093

**Patxi Taberna**

## BILDOTS ERREA ERRIOXAR ERARA

Sukaldaria: Kontxi Idigoras  
(Panaderokua Taberna)



### NOLA PRESTATU:


Bildotsa kazola zahar batean jartzea komeniko litzateke. Olioia sutan berotu eta bildotsa bertan gorritu. Ondoren, koinaka bota eta flanbeatu.

Sutatik kendutakoan, berakatza, kipula eta gatza gehitu; gerò, basokada bat ardo zuri eta bi basokada ura bota.

Labea 180 gradutan ipini eta bildotsa bertara sartu. Ordu batean labean edukiko dugu atera gabe. Flanbeatu: janaria likorez blaitu ondoren, delako likore hori erre, zapore jakina eman asmoz.

### OSAGIAIAK: (4 Pertsonendako)

- Bildotsa
- Oliba olioia (gradu batekoa)
- Berakatza
- Kipula
- Koinaka
- Basokada bat ardo zuri
- Bi basokada ur
- Gatza



**Gomendioa:** -Esnez hazitako bildotsa da egokiena plater hau xamurragoa izateko.

-Labeko sua ez da oso altua izan behar bestela, bildotsa uzkuritu eta sikatu egiten delako.

-Kazolan bildotsa gorritu beharra dago labean sartu baino lehen, barneko zukua kanporatzen ez delako eta okela xamurtzen duelako.

-Bildotsari laguntzeko aproposena kriantzako ardo beltza izan daiteke.



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

## ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

## "ESTAMPACIONES"-EK GARAIPENAREKIN HASI DU BIGARREN ITZULIA

"Estampaciones"-ek bide honetik jarraitzen du Eibarko txapelketan. Pasa den asteburuan bigarren itzuliko lehen partidua jokatu zuten eta nahiko gaizki jokatu arren erraz irabazi zuten. Azken emaitza 37-21 izan zen.

Garaipen hauek oso garrantzitsuak dira finalera sailkatzeko aukerak izaten jarraitzeko. Beraz, talde hauek Elgetakoak bai-

no txarragoak dira eta irabazteko gutxi izaten den bitartean galtzeko asko izaten da. Hauetako edozeinen aurka galdu izanez gero ia ezinezko izango litzateke finalerako txartela lortzea eta talde hauei irabazita berriz ez da ziurtatzen finalerako txartela. Hiru ihardunaldi pasa ostean erabakiorrak izango diren partidua izango dituzten Pescaderias Pro eta Vicky Leytonen aurka. Partidu hauek irabazten


badituzte finalerako sailkapena eskuan izango dute. Ez da erraza izango bi partidu hauetan garaipena lortzea lehen itzuliko porrot biak hauen kontra izan baitziren. Garaipena lortzeaz gain oso garrantzitsua izango litzateke kontrari duten "average" alde ipintzea, horrela, lehen fasea bukatzean berdinduta izanez gero "averagea"-a hartzen baita kontutan.

## EUSKO LIGAN ETA DEBA ARROKO TXAPELKETETAN BIKAIN

Eusko Ligako ohorezko mailako binakako txapelketan bikain jarraitzen du Ozkarbik. Hasiera batean maila mantentzea bazen helburua gauzak nola doazen ikusita emaitz hobea lortzea

posible da. Lehen lau taldeak puntu baten aldean daude eta denek dute azken txanparako sailkatzeko aukera. Beste bi taldeek ez dute inongo aukerarik.

ñokoak jokatzen dute-finalerdiatarako sailkatzeaz daude. Ubera II eta Antxia bikoteak ez du orain arte partidurik galdu (bostetik bost garaipen) eta nagusietan Ubera I eta Peñalverrek Soraluzeren aurka partidu bat galdu duten arren "average"-ari esker lehen postuan jarraitzen dute.



Ubera I eta Peñalver ongi ari dira Deba Arroan

Jubeniletan ere oso ongi ateratzen ari zaizkio gauzak gure ordezkariari. Banaka jokatzen den txapelketa honetan bikain jokatzen ari da Xabier Ubera eta dagoneko final laurdenetarako sailkatzea lortu du.

### Deba Arroan oso ondo

Deba Arroan ihazko urteko bide berbera daramate gure ordezkariak. Kadeteetan -Abadi-

### Beste txapelketa batzuk

**Zaramaga:**  
Sailkatze fasean:  
Arantzeta-Elorriaga  
Peñalver- Barrigon  
Ubera I-Iñurrategi


**Mungia:**  
Iñurrategi-Ubera I 3  
Fuertes-Berazaluze 22

# LENIZ

## AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186  
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604  
ARRASATE



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

## TAPEM, S.A.

Trokela eta estanpazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

# GAUZAK PIL-PILEAN

Aurreko alean aipatzen genizuen bezala aurten finalerdietarako txartela lortzea nahi zuenak asko eta ongi jokatu beharko du. Ezustekoak, izango zirela bagenekien arren inoiz baino ugariagoak izan dira txapelketa hasiera honetan. Besteak beste HHH-k izugarritzko jipoa eman zion faboritoetako bat den Angiozarri. Txapelketa-ko beste ezustekoa Luzelekrikanpaluk eman zuen, inork espero ez zuenean 1eta 0 gaingitu zituzten azken txapeldunak diren Bar Paseokoak.

Txapelketa hasi aurretik argi zegoen aurtengoa inoiz baino gogorragoa izango zela. Honen adibide garbia Patxi Tabernakoen emaitzetan ikusi daiteke. Txapelketa hasi zenean, jende askok, Patxi ikusten zuen txapeldun bezala eta

oraindik txapelketa hasi besterik egin ez bada ere finalerdietara sartzeko arazo handiak izango dituzte. Dena den, bere jokalarien maila ikusirik gauzak bizkor aldatuko direla espero da.

Azkenihardunaldian jokatutako bi partiduak oso interesgarriak izan ziren. Lehen partidua printzipioz txapelketa irabazteko aukera handiak dituzten bi taldek jokatu zuten, Angiozarkoek eta Txapelak. Garaipena lehenengoentzako izan zen 3 eta 2ko emaitzaz. Bigarrena berriz, sailkatzeko arazoak izango dituzten bi taldek jokatu



Eguraldi onarekin batera jendea kantxara hurbiltzen da.

zuten HHH eta Luze-koek. HHH 3 eta 0 aurreratu bazen ere bigarren zatian Luzek. partiduari buelta eman zion eta 5 eta 4ko emaitzaz irabazi. Luzek azken bi partiduak irabazi egin ditu eta bide onetik doazela dirudi.

## Aritz Aranguren: "HHH erakusten ari den mailak harritu egin nau"



- Zein balantze egingo zenuke lehen bost ihardunaldi hauetaz?

Argi ikusi da talde guztia kparekatu-rik daudela eta ez dagoela faborito argirik. Beharbada hasieran faborito zirenak orain ez

dira hain faborito gauzak oso parekatuak baitaude.

- Zeinek edo zerk harritu zaitu gehien?

HHH erakusten ari den mailak asko harritu nau. Asko harritu ninduen baita Luzelekrikanpaluk Bar Paseoren aurka lortu zuen garaipenak.

- Etxean futbitoaz hitz egiten al duzue? Eta lagunartean?

Gutxi. Gehienbat zein emaitz egiten dugun komentatzen dugu eta beharbada nola jokatu dugun, baina beharbada "mozten" saiatzen naiz. Lagunartean berriz bastante komentatzen dugu.

- Zeintzuk dira, zure ustez, txapelketa irabazteko faborito nagusiak?

Lehen esan dudan bezala ez dago faborito garbirik. Nik Txapelaren alde apostu egingo nuke baina gauzak oso parekatuak daude.



ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA  
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire giro-  
tua.



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxes: 78 90 46

## INTXORTAKO ERROAK

**-Asentziotik Kanpazarrerako bidean zehar zabaltzen dira ale honetako baserriak. Arrotatik hasi eta Zabaletaraino helduko gara inguru atsegin eta eguzkitsuan zehar-**

Heldu gara Elgetako baserriak ezagutzeko egin dugun aha-  
legin honen bukaerara. Urte batez  
Elgetako zoko eta bizilagunak  
ezagutzeko aukera izan dugu. Ba-  
tzutan auzoak hutsik ikusi ditugu  
baina ez da bizirik falta izan. Ber-  
tan bizi direnak sarri eman digute  
enbidia eta beste batzutan lan  
neketsu baten ondoren errukia ere  
eman digute. Aurreko aleak gorde  
badituzue, oinetako egokiak hartu  
eta guk ezagutu ditugun parajeak  
ezagutzera gonbidatzen zaituzte-  
gu biziki. Bertakoek eta guk  
eskatzen dizueguna, errespetuz  
eta ingurua zainduz aritzea baino  
ez da.

Baserriei buruzko atal honi  
amaiera emateko, Arrota aldera jo  
dugu. Arrotako bi baserrietaz gain,  
Zabaleta auzokoak eta Jarikotxo ere  
aipatuko ditugu.

Bai Zabaletako baserriak  
eta Jarikotxo, Agiozarko auzoaren  
barnean sartzen badira ere, bertako  
biztanleek Elgetara jotzen dutenez,  
hauek ere atal honetan aipatzea  
erabaki dugu.

Angiozar eta baita Ubera



Zabaleta azpikoa baserrian aintzinako kutxak eta soro laneta-  
rako tresneria txukuntzeko lanetan zebiltzan.



Igande goizetan jende ugari ibiltzen da Kanpazarrerako bidean. Kotxe ugari ere  
ibiltzen denez arretaz ibli beharra dago.

ere orain dela gutxi arte Elgetako  
auzoak genituen. Garai horietan  
Elgetako lurrek Deba erreka zuten  
Bergararekin muga.

Banatzearen arrazoia, Elge-  
tatik Eibarrera egin zen bidean  
egon zen. Garai hartan Elgetak  
harreman estua zuen Eibarko  
industriarekin, baina biderik mo-  
tzena Bergaratik buelta dihoana  
zen. Bidea egite-  
ko tramiteak  
1922. urtean  
hasi ziren, eta  
hasiera hasiera-  
tik Angiozar  
eta Ubera  
proiektu honen  
aurka azaldu  
ziren. Proiektu  
honek aurrera  
egin zezan uda-  
lak diru ugari  
jarri behar izan  
zuen. Kontu  
honetan diruak  
zer esan handia

izan bazuen ere, angiozartarrek  
batez ere, baina baita uberatarrek  
ere, Bergararako joera handitu  
zuten. 1927. urtean etorri zen bi  
auzoen eta Elgetaren arteko bana-  
keta, 6 mendeko elkarbizitzaren  
ondoren.

### Intxortako erroetatik

Arrotako baserriak, Elgeta-  
tik Kanpazarrera doan bideak  
banatuta ditugu. Hau ere paraje  
maldatsua dugu Intxortaren hego-  
aldeko maldetan baitago kokatuta.  
Izena ere kokatuta dauden paraje-  
tik hartu dute. Arrota arroetatik  
dator, erro hitzetik alegia. Arrota  
gainekoaren lehenengo erreferen-  
tziak 1625. urtekoak ditugu.

Angiozarreko parte diren  
baserrien artean, Jarikotxo Asentzio  
azpialdean dago kokatuta, Angio-  
zarko bailarara begira. Hemendik  
Anboto aldera begiratzen badugu,  
Zabaletako baserriekin egingo  
dugu topo.



Pinari artean dagoen zelai baten gainaldean, Zabaleta eta Zabaleta azpikoa ikusiko ditugu. Zelai beraren azpialdean berriz Lamarain (Lamain baserria) eta auzoko patroiz den San Bartolome-ren ermita alboan. Azkenik errekatik hurbilen, gutxi gora-behera Arrota azpialdean, Sakona eta Galarra baserriak.

### San Bartolome auzoko zaindari

San Bartolome ermita lehen esan dugun bezala Lamarain baserriaren aldamenean dago kokatua. Erreferentzia batzuk XVIII. mendearen bukaeran kokatzen badute ere zaharragoa izatea ere baliteke. Historia eta arteko liburuek adierazten dutenez, ermita honek duen leihotako bat ertarokoa izan daiteke, egitura eta formari begiratzen badiogu behintzat. Ertaroko kutsu hau Lamarain baserriaren hormetan ere atzeman daiteke.

Galarra baserriari buruzko lehenengo erreferentziak, 1773. urtekoak dira eta bere izenak kas-

tainaren ikatzean edo zuhaitzean lehortutako arrametan izan dezake jatorria.

### Tresna eta altxorak berrizten

Zabaletako baserriari buruz topatu izan dugun lehenengo aipamena 1768. urtekoa da. Bertan agertzen denez, Domingo Zabale-tak erosi zion baserri hau Juan Abad Sostoari. Baserri hauetaik dagoen paisaiak edonor utzi dezake aho zabalik. Guk ez dizuegu kontatuko, onena zuek hurbiltzea izango da.

Zabaletan izan ginenean, bertakoek kutzak eta antxinako baserriko tresneria berrizteko lanetan ari ziren. Beraien esanetan baserri askotako ganbaretan horrelako tresna ugari omen dago norbaitek noiz berriztatu zain. Gure aldizkaritik tresneria hori berrezku-



Jarikotxo eraberriturik ikusten da. Orain pare bat hilebete ura lortu dute baserriraino eramatea.

ratzera anima nahi zaituztegu, gure baserrien historiaren parte garrantzitsu baitira.

Hile honetako alearekin ematen diogu amaiera, joan den urteko martxoan ekin genion baserriari buruzko atal honi. Dena den datorren hilabeteko alea oso berezia izango da bi urte egiten baitu aldizkari honek elgetarren artean, hau dela eta erreportai berezi bat egingo dugu herrian dauden etxe eta eraikuntza historikoenak gogoratuz.



Argazkiak ateratzera joan ginen egunean, sekulako eguraldia zegoen eta honelako itxura zuen Zabaletako auzoak Jarikotxoko etxaurretik. Atzean ikusten den mendia Anboto dugu.

## LEHIAKETA



Asmatu beharrekoa marra zuzen-zuzena bazen ere, gure maketatzailleak zati bat okertu ere egin du eta horrek zerbait zaildu du lehiaketa. Ez dirudi txirrindulari asko dagoenik erantzunak ere ez baitira asko egon. Dena den txirrindularitzara zaletu batzuk idatzi digute. Non dagoen esateaz gain zein neurri duen ere galde-tu genizuen eta esan beharra dago batek baino gehiagok neurtu duela txirrindularien helmuga puntua izaten den marratxo. 10,50 metro ditu. Neurtzeko lana hartu dutenen artean dago bada gure irabazlea, **Jose Antonio Irazabal**. Ez du neurri zehatza eman baina gehien hurbildu dena bera denez Elgetako Gazte Asanbladak emandako birentzako afaria jango du.

Oraingo alekoa zer den? Ba ez da zaila asmatu beharrekoa, ikusi besterik ez duzu. Aurreratuko dizugu neskato polit hau **instrumentu bat** jotzen ari dela.

Idatzi **Goibekokale** aldizkarira  
Salbador kalea 2 Kultur Etxea  
20690 Elgeta



Izena eta abizena: \_\_\_\_\_  
Erantzuna: \_\_\_\_\_  
Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

### KOMIKIA





Argazkia: Mari Luz Lamarain.

## Eskola Berriak mende haseran

85 edo 90 urte izango ditu erretratu honek. Eskola berriak ireki ziren eguna dugu hau. Argazkian ikusten duzuen bezala, garai haietan herriak zituen pertsona garrantzitsuenak joaten ziren horrelako ekitaldietara.

"Hermanoen" eskolak deitzen ziren ("Hermanos de la Escuela Cristiana"), gaur egun Lasalle Eskola dena. Inguruko herrietako jende asko etortzen zen eskolara. Lanbide heziketako klaseak ematen zituzten eta bertan ibilikoaren esanetan zorte handia izan zuten maila honetako irakasleak izatean.

Urte batzuk beranduago herriko apaizarekin izan zuten desadostasun baten ondorioz herritik bidaliak izan ziren lau praileak. Beasainera eraman zituzten eta gaur egun ere han daude. Herritarrek pena handia izan zuten urtetan eta garai haietan apaizari aurrez-aurre hitz potolo batzuk esan zizkionik ere egon zen.

Jende artean herrian egoten ziren hiru guardia zibilak eta hiru mikeleteak ere badaude.

Argazkian beheko lerrotik eta ezkerretik eskubira:

Beheko lerroan: Antonio Markiegi, Leocadio Gerra, Don Felipe (parrokua). Don Manuel Orbegozo, Uberako apaiza, Gillermo Irazabal (Patxi Zeletan aita).

Bigarren lerroan: Paulo Albistegi (alkatea), Jose Mari Lamarain (teniente alkatea), aguazila, "Hermanoetako" bat.

Hirugarren lerroan: Beste "Hermano" bat, Juan Cruz Arantzeta (Urrejaleikoa) gainean, Ubera eta Angiozarko ordezkariak.

Jende artean: Aranburu, Azkarate, Hilari Beistegi eta txapelduna aguazila da.



# LILURA

Edertze Institutua

## DEPILAZIO PROGRESIBOA

- Akabo ileak!!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

*Has zaitetz oraintxe!*

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefonoa: 766 31 71

Ibargarai, 11-13  
BERGARA  
Tel - Faxa: 767058



RAMON BASTIDA



**MODELO BERRIAK**  
Kalitate hobea preziorik onenean!



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

**OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU**